BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

994

EBAZPENA, 2016ko martxoaren 2koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena. Honen bidez, argitara ematen da merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntza-programan ezarritako diru-laguntzak 2016ko ekitaldian emateko deialdia.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak 2014ko ekainaren 25ean emandako Aginduaren bitartez (2014ko uztailaren 2ko EHAA, 124. zk.), Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko ekainaren 24ko Aginduak zuzenduta (2015eko ekainaren 26ko EHAA, 119. zk), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ematen dituen diru-laguntzen nondik norakoak ezartzen dira, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten merkataritza-establezimenduek modernizatzeko inbertsio-proiektuak gara ditzaten.

Merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntza-programa arautzen duen Aginduaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, programan iragarritako laguntzak emateko 2016ko ekitaldiko deialdia egin behar da, eta horretarako eman beharreko arauak eman.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 8. artikuluan ezarritako ahalmenaren indarrez, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak 2014ko ekainaren 25ean emandako Aginduaren bitartez (2014ko uztailaren 2ko EHAA, 124. zk.), Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko ekainaren 24ko Aginduak zuzenduta (2015eko ekainaren 26ko EHAA, 119. zk), arautu zen merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntza-programa, eta, hain zuzen ere, laguntza horien 2016ko ekitaldiko deialdia egitea da ebazpen honen xedea.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Deialdi honetako laguntzak finantzatzeko, 3.683.000 euro erabiliko dira guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko 2016ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 9/2015 Legean hartarako ezarritako aurrekontu-kredituaren kargura.

Deialdi honi lotuta emango diren diru-laguntzen zenbateko osoa ez da izango artikulu honetan finkatutako diru-kopurutik gorakoa, edo, indarrean dagoen legeriari jarraituz, kredituen arteko lotu-rarik edo aurrekontu-aldaketarik badago, lehengoa eguneratuta sortutako diru-kopurutik gorakoa. Horrenbestez, diru-kopuru hori agortutakoan, ezin izango da diru-laguntza gehiago eman; beraz, hortik aurrera, baliorik gabe geratuko da ebazpen hau. Egoera horietakoren bat gertatuz gero, horren berri jakinaraziko da Merkataritza eta Turismoko sailburuordearen ebazpen bidez.

3. artikulua.– Eskabideak aurkezteko baldintzak, lekua eta epea.

1.– Enpresa eskatzaileek, laguntzak eskuratzeko, programa arautzen duen Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko ekainaren 25eko Aginduaren 3. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Agindu hori Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko ekainaren 24ko Aginduak zuzendu zuen.

2.– Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko ekainaren 25eko Aginduaren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, (agindu hori Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko ekainaren 24ko Aginduak zuzendu zuen) eskabideak eta gainerako agiri osagarriak aurkezteko, bide telematikoak erabili daitezke, edo aurrez aurre aurkeztu Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren lurralde-ordezkaritzan –proiektua non egingo den, lurralde historiko hartan–, Eusko Jaurlaritzaren Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan (Zuzenean), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako tokietan.

Eskabidea eskuratzea eta betetzea honako egoitza elektroniko honen bidez bakarrik egin ahal izango da: http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/eu/

Eskabidearen edukia eta erantzukizunpeko adierazpenen edukiak eransten dira, herritar oro jakitun izan dadin.

3.– Eskabideak aurkezteko epea, hasi, deialdi-ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, goizeko 09:00etan, eta 2016ko uztailaren 15ean bukatuko da, eguerdiko 12:00etan.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi-ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 2a.

Merkataritza eta Turismoko sailburuordea,
ITZIAR EPALZA URQUIAGA.

ESP. ZK.

ESKATZAILEA

_____ jauna/andrea,_____ NAN-zk. duena

Emakumezkoa ☐ / Gizonezkoa ☐ (*estatistika-ondorioetarako* nahitaez betetzekoa)

Honako enpresa honen legezko ordezkaria:

Baltzuaren izena: _____

IFK: _____ J.E.S.N.:_____ EJZ: _____

EJZn alta ematearen data: a) Enpresarena: _____

b) Merkataritza establezimenduarena: _____

Pertsona juridikoa bada: Kide-kopurua (emakumeak) _____ Kide-kopurua (gizonak) ____

Sozietatearen helbidea: _____Lurralde: _____ Udalerria:

Herria: _____ PK: _____

Kalea: _____, zk.: _____solairua: ___

Telefonoa _____ Faxa _____ , URL (web-orria) _____

Harremanetarako pertsona:

Izen-abizenak: _____

Telefonoa _____ Faxa _____ , _____ Posta elektronikoa:_____

HONAKO HAU ESKATZEN DU:

Merkataritzako Establezimenduak Modernizatzeko programarako laguntzei heltzea (MEC) -2016.

❑ Baimena ematen diot Merkataritza Zuzendaritzari, administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasunezko zerbitzuen bidez lor daitekeen NANaren inguruko dokumentazioa galdatzeko, hala nola egiaztatzeko, administrazio honetan bezala beste herri erakunde batzuetan ere, laguntzak jasotzeko eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzearren aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna.

❑ Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, jakitun nago eta onartzen dut Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari ematen dizkiodan datuak fitxategi batean sartuko dituela, administrazioak bere egiteko eta eskumenen barruan erabili ditzan. Datuak ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi izanez gero, honako helbide honetara zuzendu zaitezke idatziz: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Zerbitzu Zuzendaritza, Donostia-San Sebastian kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz.

MERKATARITZAKO ZUZENDARI JAUNA

_____2016ko _____ aren ____ (e)an.

Izenpea eta zigilua:
(Ondasun-erkidegoa izanez gero, kide guztiek izenpetu behar dute).

I. ORRIA: ZINPEKO ADIERAZPENA

ESP. ZK. _____

ESKATZAILEA _____

Jn./And.: _____NAN zenbakia: _____

Honako enpresa honen ordezkari gisa: _____ IFK: _____

HONAKO HAU AITORTZEN DU:

- zerga betebeharren eta Gizarte Segurantzarekikoen ordainketa egunean duela.

- Enpresak, eskabidea egin aurreko ekitaldia ixteko datan, guztira_____ langile zituela, _____ gizonezko eta _____emakumezko.

- 2015eko abenduaren 31n, fakturazioa ez zela 50 milioi eurokoa baino handiagoa edo balantze orokorra ez dela 43 milioi eurokoa baino handiagoa.

- Enpresa honetan ez dute parte hartzen bere kapitalaren % 25 edo gehiago gainditzen duten honelako enpresek: 250 langile edo gehiago dituztenek, edo 50 milioi euro baino handiagoko negozio-bolumena eta 43 milioi euro baino handiagoko balantze orokorra dutenek.

- Diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galarazten duen administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ez izatea horren barruan honakoak direla: Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea dela-eta, sexuaren inguruko diskriminazioa egiteagatik gertatutakoak.

- Eskatzailea ez dagoela sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruko ezein itzulketa edo zehapen prozeduratan.

- Laguntza-eskabide honetaz gain, eskabidea aurkeztu eta/edo laguntzak jaso dituela inbertsio-proiektu honetarako honako erakunde publiko edo pribatu hauetan, datan adierazitako egunera arte: (bete ezean ulertuko da ez duzula beste laguntzarik eskatu).

Eskaera urtea	Instituzioa	Egitaraua	Eskatutako zenbatekoa	Emandako laguntza

- Laguntza-eskaera honez gain, azken 3 urteotan erkidegoko arauek ezartzen duten minimis (2) laguntzen erregimenaren menpe dauden ondorengo diru-laguntzak jaso ditu (1):

Eskaera Urtea	Instituzioa	Egitaraua	Emandako laguntza

- Nire enpresak ez ditu armarik ekoizten, ez merkaturatzen ez eta finantzatzen ere, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legean zehaztutakoa betez.

- Zerrenda honetakoek lan harremana dute laguntza eskatu den merkataritza establezimenduarekin:

NAN	Izena eta abizenak	Titulazioa / Ziurtagiriak

Era berean, konpromisoa hartu du erakunde publiko edo pribatuetan proiektu honetarako egiten dituen laguntza-eskabidea guztiak jakinarazteko.

(1) ETEek soilik bete behar dute

(2) Minimis arauaren arabera, enpresa batek minimis laguntzen kontzeptuan jasotzen dituen laguntza guztien zenbatekoa ezin da izan guztira 200.000 euro baino gehiago hiru urteko epearen barruan.

_____(e)n, 2016eko _____aren ___(e)(a)n.

Izenpea eta zigilua:
(Ondasun-erkidegoa izanez gero, kide guztiek izenpetu behar dute).

II. ORRIA: INBERTSIO-PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

ESP. ZK.

ESKATZAILEA

A. EGINDAKO INBERTSIOA:

Konzeptua:	Balio garbia (BEZik gabe)
Inbertsioak kudeatze softwarean	
Salgaietako balantza elektronikoak, informatika-ekipoak, aplikazioak eta hauen osagarriak, beti ere merkataritza-prozesuen barruan integraturik badaude edo enpresa-kudeaketarako badira.	
Merkataritza-jarduera garatzeko beharrezkoak diren altzariak, ekipamenduak, lokala eta kanpoko nahiz barruko elementuak (merkataritza-errotuluak barne) eraberritzeko eta eguneratzeko inbertsioak	
GUZTIRA	

HONAKO HAU ESKATZEN DU:

Merkataritza enpresetako establezimenduen modernizaziorako 2016 urteko laguntzetako bat jaso nahi du.
euro. (Diru-laguntza jasoko duen proiektuaren inbertsioa, guztira)

B. EGINDAKO INBERTSIOAREN AZALPEN-MEMORIA:

III. ORRIA: INBERTSIO-KOKAPENAREN ETA FAKTURA TAULA

Establezimendu bakar bati dagozkion fakturen zerrenda

ESP. ZK.

Saltokiaren izena	Kalea edo Plaza	Zk.	Udalerria	P.K.

Zk	Data	Faktura zk.	Deskribapena	Hornitzailea	Kudeatze softwarean	Informatika-ekipamenduak	Beste inbertsio batzuk	Zenbatekoa	ordainketa data

IV. ORRIA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNARE-KIKO KONPROMISOAREN DEKLARAZIOA

…… jaunak/andreak, …… enpresaren ordezkari gisa, (IFK: ……, eta jakinarazpenetarako helbidea ……., kalea: ……. PK: …….. telefono-zenbakia: ……).

Merkataritzako Establezimenduak Modernizatzeko programarako laguntzari edo diru-laguntzari dagokionez, honako hau

DEKLARATZEN DU:

Ordezkatzen duen pertsona edo erakundea ez dutela inoiz zigortu arau-hauste oso larriarengatik eta, halaber, ebazpen administratiboaren edo epai judizial irmoaren ondorioz ez dutela inoiz kondenatu langileen Estatutuan berdintasunari buruz azaltzen diren betebeharrak edo aplika daitekeen hitzarmena ez betetzeagatik.

Ez dagoela zigortuta diru-laguntzen eta laguntza publikoen onuradun izateko debekuarekin, otsailaren 12ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikuluaren arabera.

Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasuna bermatzeko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa betetzen duela.

ETA HONAKO KONPROMISO HAU HARTZEN DU:

Administrazioaren laguntzak kontratatzen, adosten edo jasotzen dituzten erakundeei otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak ezartzen dizkien betebeharrak bere gain hartzekoa:

- Erakundeak behartuta daude tratu-berdintasunaren, aukera-berdintasunaren, dibertsitatearen eta ezberdintasuna errespetatzearen eta emakumezko eta gizonezko langileekiko desberdintasunaren printzipioen arabera gidatzera (3. artikulua).
- Beren jardunetan genero-ikuspegia sartzera, ekintza positiboa gauzatzera eta sexuaren araberako rolak eta estereotipoak kentzera (3. artikulua).
- Beren zuzendaritza-organoetan eta organo kolegiatuetan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izan dadin lortzera (23. artikulua)
- Estatistikak eta azterlanak genero-ikuspegiarekin egitera, datuak sexuaren arabera banakatuta bilduz eta aurkeztuz (16. artikulua)
- Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egitera edozein euskarritan (18.4 artikulua)

Eta horrela jasota gera dadin, deklarazio hau sinatzen dut ……..(e)n, ……(e)ko ……aren ……[(e)a]n

Sinadura

V. ORRIA: HIRUGARREN PERTSONEN AHALORDETZEA IZAPIDETZA TELEMATIKORAKO

HIRUGARREN PERTSONEN AHALORDETZEA IZAPIDETZA TELEMATIKORAKO

Identifikazio-datuak

Ahalorde-emailea

Izena.....Lehen abizena.....

Bigarren abizena..... NAN.....

.....erakundearen izenean IFZ.....

Helbidea.....Zk.....

Herria.....PK.....

Helbide elektronikoa.....Tel. .....

Ordezkaria

Izena.....Lehen abizena.....

Bigarren abizena..... NAN.....

.....erakundearen izenean IFZ.....

Helbide elektronikoa.....Tel. .....

Euskarri elektronikoak erabiliz honako jarduera hauek gauza ditzan

☐ Eskaerak eta erreklamazioak aurkeztu, atzera egin, uko egin eta dokumentazioa eman.
☐ Espedienteetara sartu.
☐ Jakinarazpenak jaso.

Honako prozedura hauetan

Diru-laguntzak (idatzi laguntzaren izena).....

Data eta sinadurak

Ahalordetza hau baliozkoa izango da diru-laguntza programak iraun bitartean edo, bestela, berariazko espedientetik eratorritako errekurtso eta beste edozein prozedura izapidetu bitartean.

..... (e)n, ...ko..... aren.....a.

(Ordezkatutakoaren sinadura) (Ordezkariaren sinadura).